

LEZAMA / Liburutegiak uda guztirako maileguak eskainiko ditu

Lezamako liburutegiak abuztuan itxita egon arren maileguekin jarraituko du.

LEZAMA. Lezamako liburutegiak eskaintza berezia igorri du. Lau liburu eta bestelako material didaktiko alokatzeko aukera izango da uda honetan, nahiz eta udal zentroaren ateak itxita egon. Liburuak irailean bueltatu beharko dituzte, liburutegiak bere ateak berriro irekiko dituenean.

Lezamako udal liburutegiak abuztuan itxiko ditu bere ateak baina uztailaren 30erarte zabalik izango da, ohi bezala. Hilabete honetan, uda osorako gehienez lau liburu eta DVDak, haurrentzako filmeak, aldizkariak edo bestelako materiala maileguan hartzeko zerbitzua eskaintzen dute. Modu honetan, oporretan irakurtzen jarraitzeko aukera eskaintzen zaie lezamarrei, lasai eta epearen zai egon behar gabe.

Liburuak maileguan hartzeko interesa dituztenek liburutegira jo beharko dute uztailaren 30a baino lehen, astearte edo ostegunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etarako ordutegian. >L.u.